

LIZARRAKO HEO-EAN AZTERKETAK EGITEKO PROTOKOLOA: IKASLEAK

1. PROBAK EGITEKO NEURRIAK

A. Idatzizko azterketak

Ikasleei ordena ortografikoan dei egingo zaie proba hau egitera sar daitezen.

- a. Webgunean argitaratutako azterketen egutegian adierazten da proba egin baino ordu laurden lehenago egon behar dutela ikastetxean.
- b. Deitutako ikasleek ikastetxetik kanpo itxaron beharko dute ahoz eta alfabetikoki deitu arte.
- c. Izena entzundakoan, eskolara sartu eta eskailerak igoko ditu azterketa egin behar duen solairuraino; ilaran igo beharko ditu.
- d. Ikasgelan, irakasle batek esango dio non eseri behar duen.
- e. Mahaian azterketa-eredua egongo da; idazten hasi aurretik, irakasleen jarraibideak entzungo dituzu.
- f. Idatzizko azterketak atal hauek ditu:
 - Idatzizko testuen ulermena
 - Ahozko testuen ulermena
 - Idatzizko bitartekotza
 - Idatzizko testuen produkzioa eta koprodukzioa
- g. Etenaldi labur bat egingo da idatzizko bitartekotza eta idatzizko testuen produkzio eta koprodukzio probak egiten hasi aurretik¹. Etenaldi horretan ezin izango da lekua utzi, komunera joateko ez bada.
- h. Komunera joan ahal izango da etenaldian.
- i. Azterketa amaitu ondoren, ikasleak gutun-azal batean sartuko ditu azterketa dokumentua, idatzizko bitartekotza eta idatzizko testuen produkzioa eta koprodukzioa zein erabili dituen zirriborro-paperak ere, eta, gero, irakasleen mahaian egongo den kutxan sartuko du gutun-

¹ Proba hori egin behar ez duten ikasleak gela edo aretotik aterako dira une horretan, irakasle antolatzaileen jarraibideei jarraituz.

azala. Ahozko eta idatzizko testuen ulermeneko erantzun-orriak irakasleen mahaian egongo den beste kutxa batean utziko ditu.

- j. Eraikinetik aterako da gero, eskaileretatik, banan-banan, ilaran.
- k. Ikasleak ez dira eskailera-buruetan edo eraikinaren beheko solairuan geratuko. Azterketa amaitu ondoren, ikastetxea utzi behar dute.

B. Ahozko azterketak

a. Ahozko probak atal hauek ditu:

- Ahozko bitartekotza
- Ahozko testuen produkzioa eta koprodukzioa

b. Proba grabatu egingo da.

c. Ikasleek azterketa-egutegian adierazitako egunean joan beharko dute azterketa egitera (Hizkuntzak menua - dagokion hizkuntza ofiziala, Azterketak atala).

d. Ikastetxean sartzeko, azterketa-gelara sartzeko eta komunak erabiltzeko, 1.A atalean ezarritakoa bete beharko da.